

Pedro Javier Murillo, Iñaki
Osés eta Mikel Ariño
Eguzkiko kideak.



Eguzki Irratia

Mende laurden borrokan libre informatzeko

Iruñeko irrati libre bakarrak 25 urte beteko ditu aurten; batere erraza izan ez den mende laurdena: Eguzki Irratiak (www.eguzki.net) itxiera ugari jasan ditu, diru iturri nagusia moztu diote, ohiko lokalak zaharrak geratu zaizkio... Baina hiru urteko azken krisialdiaren ostean, indarberrituta dator. Arduradunen esanetan, horrelako komunikabideak beharrezkoak dira, aldarrikatzeko oraindik asko dago eta hamaika erronka dituzte Iruñerriko kontzientziak astintzen jarraitzeko.

MIKEL GARCIA

Argazkiak: Josu Santesteban

SORGIÑA IRRATIA izan zen Iruñeko irrati libreen aitzindari, 70eko hamarkada bukaeran ia modu klandestinoan sortua, eta Radio Paraísok hartu zion lekukoa. Garai hartan, Euskal Herrian zentral nuklearra egiteko proiektuen kontrako batzordeek indar handia zuten eta euren aldarrikapenak adierazi ahal izateko *Eguzki* aldizkaria sortu zuten. Ondoren, irratia ere beharko luketela ikusi eta beste irrati libre bat jaio zen Iruñean: Eguzki Irratia. 1982ko abenduaren 15ean abiatu zen, talde antinuklearren bozgorailu bezala, baina bestelako ideia, nahi eta ahotsak adierazteko eta aldarrikatzeko bidea ere izan zen hasieratik,



informazio pluraltasuna bermatzeko asmoz.

Izan ere, urte haietako diala kontuan hartzen badugu, irrati publikoak ziren jaun eta jabe eta FMa nahiko hutsik zegoen.

Orduko irrati pribatu askok, ordea, ez zuen begi onez ikusi jaio berria, audientzia banatu beharrak beldurtzen zituen eta presionatzeari ekin zioten. Horrez gain, hasieratik hainbat itxiera jasan zituen Eguzkik eta hastapenak gogorak izan ziren. Ez hastapenak bakarrik, Eguzkirena ez baita ibilbide samurra izan. Esaterako, autogestioaren bidea aukeratu zuten, subentzioek eta publizitateak proiektuaren askatasuna mugatu ez zezaten, eta batzuetan

prekarietate egoeran lan egitera behartu ditu horrek. Are gehiago Iruñean txosnak galaraztearekin batera komunikabidearen diru iturri nagusia agortu zenean. Egun, "Eguzkide"ak edo bazkideak dira diru iturria eta defizitrik ez duten arren, superabitik ere ez dutela diote arduradunek.

"Hau ez dago hila"

Dena den, krisirik okerreza azkena izan zen, 2002koa, hainbat arazo elkartu zitzaizkielako: funtzionamendua, irratia eredu eta finantzazioa, hirurak krisian sartu ziren, eta Navarrerria kaleko betiko lokalak zaharberritzeko premia azaldu zen. Hala, 80ko hamarkadan finkatutako organo asanbleario bidezko funtzionamendua zaharkitua zegoela ikusi zuten, geldoegia zela, eta arintzeko asanbleaz gain irratia eguneroan kudeatzeko organoa sortu zuten. Irrati ereduak formetan eta edukietan bilakaera behar zuela ere erabaki zen eta hori lantzen ari dira orain: "Irratia batez ere goizean entzuten da eta Iruñerriko jendeak berehalako informazioa eskatzen du, eskualdekoa, sinesgarria eta serioa. Hori da gure apustua: irratia motorra izango den goizeko magazina", azaldu digu Jorge Ribera irratiko kideak. Horretarako, jada lanean dauden boluntarioekin batera profesionalak kontratatzea da asmoa. "Funtsean, programazio ona eskaintzea da helburua, kalitate, pluraltasun eta gai aniztasun handiagorekin". Magazina uda aldera edo 2007-2008 ikasturte hasierarako martxan jartzea gusatuko litzaieke. Navarrerria kaleko lokalak berreskuratzea ere lehentasunen artean dago —orain beste lokal alternatibo batzuetan egiten dute lan—, uztaila baino lehen, ahal bada, eta finantzazioa hobetzeko 25. urteurrena aprobetxatuz Eguzkideen kanpaina indartzea dute xede. Asmoak, beraz, ez dira gutxi eta hiru urte iraun dituen krisialdiari argia ikusten diotela dio Riberak: "Pozik gaude gauzak nola doazen ikusita eta jendea helarazi nahi diogu hau ez dagoela hila, bada-goela proiekturik".



BOS

Bilbao Orkestra Sinfonikoa

06
07

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA

Zuzendari Titular eta Artistikoa, Juanjo Mena

MAIATZA 24-25



L. van Beethoven: Triple concierto para violín, violonchelo, piano y orquesta, en Do mayor, op. 56

F. Schubert: Sinfonía nº 9 en Do mayor, "La grande"

Ludwig Müller, biolina

Luis Zorita, biolontxelo

Leonel Morales, pianoa

Gunter Neuhold, zuzendaria

Beethoven-en

Konzertu hirukoitza

Informazioa		Babeslea	
ordutegia	lekua	prezioak	BBKren Garia baidin baduza,
20:00	Palacio Euskalduna Jauregia	24,00 € 12,00 € gazteak (-27)	
T. 94 40 35 205 www.bilbaoorkestra.com		7,50 € 4,00 €	sumak 26 eta abonak 30€



Bitxikeriak mila

Hain zuzen, dena ez da latza izan bidean, ezta gutxiago ere. 25 urte hauetako egoera bitxi eta dibertigarriek liburu bat idazteko adina istorio emango lituzketela dio Riberak. Gogoan duenetako bat, lehenengo itxiera. Lokutoreak zuzeneko saioarekin jarraitu zuen, poliziari irratia zergatik itxi nahi zuten galdetuz, ea ixteko agindurik al zekarten, idazteko makinarik al zuten... Eta poliziak ez zuen ezeren erantzunik. Gainera, jende ezaguna pasa da bertatik: Juan Cruz Alli, adibidez, bi aldiz elkarrizketatu zuten Nafarroako lehendakaria zenean eta Eguzki legeztatzearen alde agertu zen, “guretzat irratira datorren edozein herritar ezezagun Alli bezain garrantzitsua den arren”. Halaber, Ribera harro dago mende laurdenean egin duten lanaz: “Irrati liberei marjinal eta ez-profesionalaren etiketa jarri ohi digute, baina askotan gure estiloak arrakasta izan du eta inbidia sorrarazi komunikabideetako profesionalen artean. Eskuinak denetik deitu digu, baina badakigu belarria jarria dutela eta irratia komertzialek ere gu bezalakoak behar dituzte berrietzeko eta euren komunikabideei freskotasuna emateko”.

Une hauetan, musika eta Iruñerriko, Euskal Herriko eta nazioarteko informazioa eskaintzen dituzte eta egitasmo berriak burutu bitartean Arrosa sarea dute oinarri. Arrosa 2001ean sortu zen Euskal Herri osorako, irratia proiektu herrikoen artean euskarazko programak trukatzeko. Horri esker, gaztelera eta euskara nahasten dituen irratia honetan euskarak leku garrantzitsua du orain: “Eskualdeko egoera hartu dugu beti kontuan, horren isla izan nahi baitugu –kontatu du Riberak–. Hemen, euskaraz dakitenen kopurua %30 ingurukoa dela uste dugu eta Arrosari esker ia %45a hizkuntza honetan da. Nolanahi, 35 urte inguruko belaualdia ari gara orain lanean, baina belaualdi berrien artean euskaraz dakien jende gehiago dago eta euskarak geroz eta leku gehiago izan dezake, herritarrek beraien osatzen baitute lantaldea”. Zehazki, hainbat kolaborazio finko eta puntualagoez gain, 25 kide inguru ari dira lokutore, mantentze edota teknikari lanetan.

Roldan, erregea... eta itxiera franko

Luis Roldan Nafarroako gobernatzaile zela, Eguzki Irratiak bi itxiera jasan zituen. Lehena, jaio eta hiru hilabetera, 1983ko martxoan; ia urtebete eman zuen itxita. Bigarrena, 1984an, eta hilabeteetara bueltatu ziren lanera. “Garai hartan Euskal Herri osoan irrati ugari itxi zituzten, irrati pribatuen presioa asetzeko, irrati libreen booma frenatzeko eta errepresio hutsagatik”, argudiatu du Jorge Ribera Eguzkiko kideak. Irrati bidez esandakoagatik berriz, beste bitan itxi zuten. 1988ko otsailan, Espainiako monarkek Nafarroa bisitatu zuten estreinakoz eta “Iruñearen okupazio polizialaren aurrean, kalean gauza handirik ezin zenez egin protesta nolabait Eguzkik bideratu zuen, herritarren parte-hartzearekin. Irratiak ohiko audientzia handitu zuen eta ez zen agintarien gustuko izan”. Ekipamendu guztia eramateaz gain, bi pertsona atxilotu zituzten eta horietako batentzat, lokutorearentzat, sei urteko zigorra eskatu zuten erregea iraintzeagatik. Azkenean absolbitu egin zuten. Aurreko itxialdian eskarmentuak lagunduta, hilabetera berriz antenan egotea lortu zuten. 1992ko maiatzaren 27an klausura berri bat sufritu zuten: egun horretan programazio berezia egin zen, PSOEn lan erreforma baten aurkako greba orokorraren harira, eta poliziaren kokapenak ematen ari zirela aitzakia hartuta –gezurra, Riberak ziurtatu digunez–, itxi egin zuten Eguzki. Oraingoan, hilabete baino lehenago lanean ziren berriz.

Alegala

Denen artean, Iruñerriko irratia libre bakarria osatzen dute –hots, inongo gobernu, alderdi edo erakunderena ez den irabazi-asmorik gabeko irratia– eta egun oraindik ez dute lizentziarik, eredu pribatua nahiz elkartzere-eredua aukeratu duten eskualdeko beste hainbat irratiren antzera –Euskal Herria Irratiaren kasua ezaguna da, adibidez–. Espainiako Estatuak 1989an legea atera zuen irratia publikoak, pribatuak eta herrietakoak arautzeko, baina elkartzere-irratientzat eta irratia libreentzat ez zuten araurik zehaztu. “Alemanian, Italian eta beste hainbat herrialdeetan araututa daude, Ipar Euskal Herrian esaterako elkartzere-irratia ugari daude, legeztatuak, baina Hegoaldean legetik at jarraitzen dugu eta inork ez digu galdetu legalizatu nahi al dugun. Azkenean, botereak bere interesei erantzuten dieten komunikabideak baino ez ditu”, kexatu da Ribera. Bere esanetan, lizentziarik gabeko irratia asko daude Iruñean eta diala nahiko beteta dagoela egia da, baina nork du bere proiektua egiteko eskubidea eta nork ez? Hori arautzeko dagoen era antidemokratikoa iruditzen zaie Eguzkiko kideei, pluraltasunik ez dagoelako.

Finean, pluraltasun hori bermatzeko eta aldarrikatzeko asko dagoelako, euren lana oraindik beharrezkoa dela dio Riberak. “Gure agintariak aukeratzeko eskubidea badaukagu, komunikabideen artean ere denetarik egoteko eskubidea egon beharko luke, are gehiago komunikabideak laugarren boterea direnean. Norbaitek uste badu irratia librearen eredu hilda dagoela eta teknologia berriek irratiarekin bukatuko dutela, jakin dezala oso oker dagoela”. Indarberrituta eta borrokan jarraitzeko gogoz beteko ditu 25 urte Eguzkik. ■

Urteurrena ospatzeko

“Eguzkide”ekin bazkaria egingo dutela ziurra da, eta bazkari hauek jarraitasuna izango dutela, harremanak sendotzeko. Urteurrena aurtengo ikasturtean zehar ospatuko dute, aurreko urteurrenetan egindakoa errepikatu gabe. X.ean ordura arteko saiorik adierazgarrienak bildu eta programazio berezia eskaini zuten eta XX.ean, etiketaz jantzita joan beharreko gala antolatu zuten. 6.000 pertsona gerturatu ziren festara.